# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**4449**

463/1995 DEKRETUA, urriaren 31koa, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen duena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren 5. atalean Lehendakariordetzari emandako egitekoak:

a) Jaurlaritzaren Idazkaritza.

b) Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta instituzioen artekoekiko harremanak eta komunikazioak.

c) Autonomi garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen ihardueren koordinazioa.

d) Autonomi Estatutuaren defentsa juridikoa.

e) Legezkotasunaren barne-arta eta aholkularitza juridiko orokorreko egitekoak gauzatzea.

f) Eusko Jaurlaritza eta bere organoak auzietan ordezkatu eta defendatzea.

g) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua izendatzeari buruzko urtarrilaren 3ko 4/1995 Dekretuko 2. atalean Jaurlaritzaren ihardueraren koordinazio orokorra eta alorkakoa egozten zaizkio lehendakariordeari, lehendakariak horrela agintzen duenean.

Koordinaziorako eta Administrazioa Eraberritzeko Idazkaritza sortzeari buruzko urtarrilaren 23ko 65/1995 Dekretuaren bidez, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailarenak ziren organoak eta Administrazioa Eraberritzako Bulego sortu berria Lehendakariordetzaren egitura berrian sartu ziren.

Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren behin-betiko antolaera finkatzen da dekretu honen bidez. Jaurlaritzaren ihardueraren koordinazioak nola izan behar duen zehaztuko du. Eginkizun hori lehendakariordeari egozten zaio, lehendakariaren zuzendaritzapean eta sailburuek euren eremukoak diren ihardueren kudeaketan duten erantzukizun eta eskuduntzen kaltetan gabe. Egozpen horrekin bat etorriz delegatzen zaizkio, baita ere, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 25.2 atalean jasotako ahalmenak. Azkenik, lehendakariaren ordezkotza-lana ere beteko du, lege horretan agintzen deneantxe.

Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak, antolaketari dagokionez, Idazkaritza Nagusi bi izango ditu, Koordi-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**4449**

DECRETO 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno.

El artículo 5 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinación de las funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó a la Vicepresidencia del Gobierno las relativas a:

a) La Secretaría del Gobierno.

b) Las relaciones y comunicaciones con el Parlamento y el Ararteko e interinstitucionales.

c) La política de desarrollo autonómico y la coordinación, a tal efecto, de las actuaciones de los Departamentos.

d) La defensa jurídica del Estatuto de Autonomía.

e) El ejercicio de las funciones de control interno de legalidad y asesoría jurídica general.

f) La representación y defensa en juicio del Gobierno Vasco y sus órganos.

g) El Boletín Oficial del País Vasco.

Por otra parte, el artículo 2 del Decreto 4/1995, de 3 de enero, de nombramiento del Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública, atribuyó al mismo en su calidad de Vicepresidente las funciones de coordinación general y sectorial de la acción del Gobierno que el Lehendakari le encomendara.

Posteriormente, el Decreto 65/1995, de 23 de enero, de creación de la Secretaría de Coordinación y para la Modernización Administrativa, procedió a integrar con carácter provisional los órganos provenientes del extinto Departamento de Presidencia Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico en la nueva estructura de la Vicepresidencia, en la que se incardinó, asimismo, la Oficina para la Modernización Administrativa.

Llegado el momento de establecer definitivamente la configuración organizativa de la Vicepresidencia del Gobierno, el presente Decreto se ocupa, en primer lugar, de definir la función coordinadora de la acción del Gobierno que, bajo la dirección del Lehendakari, y sin perjuicio de la responsabilidad y competencia de los Consejeros en la gestión de sus áreas de actuación respectivas, se encomienda a su Vicepresidente. En coherencia con tal atribución, se le delegan, también, las facultades previstas en el artículo 25.2 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y, por último, se hace mención al ejercicio de la suplencia del Lehendakari de acuerdo con lo dispuesto en dicha norma legal.

En cuanto a los aspectos estrictamente organizativos, la Vicepresidencia del Gobierno se estructura en dos

naziorako Idazkaritza Nagusia eta Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusia hain zuzen.

Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak hiru Zuzendaritza izango ditu, hots, Koordinazio Zuzendaritza, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza eta Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa. Idazkaritzak, Jaurlaritzaren iharduera programatzerakoan, koordinazio eginkizunak betetzeko laguntza emango dio lehendakariordeari. Ez horretan bakarrik, baizik eta Jaurlaritzaren Kontseiluak eta apirilaren 25eko 249/1995 Dekretuaren bidez sortutako Ekonomia gaietarako Jaurlaritzaren Ordezko Batzordeak aztertu eta onartzen dituen gaietan aholkuak eta argibideak ematen ere eskainiko du bere laguntza. Jaurlaritzaren legegintza, plangintza eta programagintzaren egutegiari jarraituz ihardungo du Idazkaritzak.

Instituzioek Eusko Legebiltzarrarekin eta Arartekoarekin izango dituzten harremanak ere Idazkaritza Nagusiaren ardurapekoak izango dira; eta hori, lehen aipatutako 4/1995 Dekretuko 3. atalean horrela egozten zaiolako lehendakariordeari, Jaurlaritzaren idazkaria denez.

1/1995 Dekretuan finkatutako jarraibideen eta Herri Administrazioa Arrazoizkotzeko eta Hobetzeko Batzordearen txostenean jasotzen diren artamenduen arabera zehazten ditu, Dekretu honek, Administrazioa Eraberrizeko Bulegoaren eginkizunak. Legegintzaldi honen aurrekoan zertu ziren artamendu horiek eta gaurregungo Jaurlaritzaren oinarri den Koalizio Akordioan agertzen dira. Egiturari dagokionez ere txostenean adierazten diren irizpideei lotzen zaie; izan ere, proiektukako lanari egokitu behar baitzaio eta Jaurlaritzako zerbitzu amankomunek eskeiniko dioten urgazpenari, eta batez ere, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organoek eta Lehendakaritzan egituraturik dauden zerbizuek.

Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusia bi eremutan banatzen da. Alde batetik, Administrazioaren Goi-mailako Kontsulta-Zentru lez eratzen da; Juarlaritzaren zerbitzu juridiko nagusiak kokatuko dira horren barne. Barneko araugintzaren arta, legeak garatzea eta epaiketetan Administrazioa ordezkatzea eta defendatzea dagozkie zerbitzu horiei, testu honetan agertzen diren ihardutze-alor batzuei dagozkienak salbuetsiz. Idazkaritza Nagusi hau, bestalde, garapen autonomikoari buruzko politikaz arduratzen da, hala Estatuarekiko eta beste lurralde-izaikiekiko harreman eta lankidetzari dagokienez, nola horrek dakartzan transferentzi prozesuari dagokionez. Antolaketa-alorreko aldaketarik esanguratsuena alor horretan gertatu da, hain zuzen; izan ere, Zuzendaritza bakar batetan bildu baitira lehengo Lege Araubideko Zuzendaritzak eta Eskualdaketa Zuzendaritzak bien artean banatuta zituzten eskuduntzak. Lehenengo eremuaren barne Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza eta Auzibide zuzendaritza sartzen dira. Bigarrenean, ostera, Autonomi Garapenerako Zuzendaritza.

Azkenik, 1/1995 Dekretuan jasotakoarekin bat etorriz eta antolaerak beragan euki behar duen irizpide

Secretarías Generales, la de Coordinación y la de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

La Secretaría General de Coordinación se articula en tres Direcciones, la de Coordinación, la de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento y la de la Oficina para la Modernización Administrativa y tiene como misión prestar al Vicepresidente la asistencia que éste precisa para el desarrollo de sus funciones coordinadoras, tanto desde el punto de vista de la programación de la actividad gubernamental como del asesoramiento e información sobre los asuntos que se someten a la deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno y de la Comisión Delegada del Gobierno para Asuntos Económicos creada mediante Decreto 249/1995, de 25 de abril. Los ejes de su actuación están constituidos a tales efectos por el Calendario Legislativo del Gobierno y el de Planes y Programas.

Las relaciones interinstitucionales, con el Parlamento Vasco y con el Ararteko se inscriben, igualmente, en el ámbito de acción de esta Secretaría General en atención a la posición atribuida al Vicepresidente y a su condición de Secretario del Gobierno conferida por virtud del artículo 3 del Decreto 4/1995, antes citado.

Por lo que se refiere a la Oficina Para la Modernización Administrativa, el Decreto precisa sus funciones de acuerdo con las orientaciones marcadas por el Decreto 1/1995, y las recomendaciones del Informe de la Comisión de Racionalización y Mejora de la Administración Pública, elaborado la pasada legislatura y reflejadas en el Acuerdo de Coalición que sustenta al actual Gobierno. En cuanto a su estructura, sigue, también, los criterios del informe en el sentido de su adecuación al trabajo por proyectos y al apoyo que le proporcionarán los servicios horizontales del Gobierno, en especial los del Departamento de Hacienda y Administración Pública, y los otros órganos encuadrados en la Vicepresidencia.

La Secretaría General de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico tiene una doble vertiente. Por un lado, se configura como Centro Superior Consultivo de la Administración en el que se encuadran los servicios jurídicos centrales del Gobierno, a los que corresponde el control normativo interno y la actuación en el ámbito del desarrollo legislativo y la representación y defensa en juicio de aquella, con las salvedades relativas a determinados ámbitos de actuación que en el texto se señalan. De otro, esta Secretaría General se ocupa de la política de desarrollo autonómico tanto en lo referido a la relación, cooperación y colaboración con el Estado y otros entes territoriales como al proceso de transferencias que ello implica. Precisamente es en este punto donde se ha producido el cambio organizativo más relevante al unificarse en una sola Dirección las competencias anteriormente repartidas en las de Régimen Jurídico y Transferencias. En la primera de las vertientes mencionadas se inscriben las Direcciones de Desarrollo Legislativo y Control Normativo y la de lo Contencioso. En la segunda se encuadra la Dirección para el Desarrollo Autonómico.

Finalmente, en coherencia con lo previsto en el Decreto 1/1995, en aras de la economía organizativa se

ekonomikoari jarraituz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organoen iharduerak dakarren administrazio lana Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak beteko du.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8 c), 19. eta 25. atalek egozten dizkidaten ahalmenen arabera, Jaurlaritzaren lehendakariordeak proposamena egin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko urriaren 31n egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA
ANTOLAERA OROKORRA.

*1. atala.*– Egitekoak eta ihardun-arloak.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuaren 5. atalean egozten zaizkion ihardun-arloei buruzko eginkizunak beteko ditu Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak, dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

*2. atala.*– Egitura Orokorra.

Jaurlaritzaren Lehendakariordetza, aurreko atalean aipatzen diren eginkizunak betetzeko, honako organo hauetan egituratzen da:

a) Koordinazio Idazkaritza Nagusia:

1.– Koordinazio Zuzendaritza.

2.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

3.– Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa.

b) Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusia:

1.– Autonomi Garapenerako Zuzendaritza.

2.– Auzibide Zuzendaritza.

3.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

II. ATALBURUA
JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDEA.

*3. atala.*– Jaurlaritzaren lehendakariordea.

1.– Jaurlaritzaren lehendakariordeak, lehendakariaren gidaritzapean, Jaurlaritzaren iharduera orokorra eta alorkakoa koordinatuko ditu, sailburu bakoitzak bere iharduera-alorren kudeaketan dituen eskuduntza eta erantzukizunaren kaltetan gabe.

2.– Bere eginkizunak betetzeko lehendakariordeak dituen eskuduntzak:

a) Jaurlaritzari eska diezazkion argipide eta laguntzak ematea Legebiltzarrari.

b) Sailen artean sortzen diren eskuduntza-auziei aterabidea ematea, sailburuek konponbiderik lortu ez dutenean.

asignan a la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública, la prestación del soporte administrativo necesario para el funcionamiento de los órganos encuadrados en la Vicepresidencia del Gobierno.

En virtud de las facultades que me confieren los artículos 8 c), 19 y 25 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Vicepresidente del Gobierno y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 31 de octubre de 1995,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ORGANIZACIÓN GENERAL

*Artículo 1.*– Funciones y áreas de actuación.

La Vicepresidencia del Gobierno ejercerá las funciones relativas a las áreas de actuación atribuidas en el artículo 5 del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, de conformidad con lo establecido en el presente Decreto.

*Artículo 2.*– Estructura General.

Para el ejercicio de las funciones a que se refiere el artículo anterior la Vicepresidencia del Gobierno se estructura en los siguientes órganos:

a) Secretaría General de Coordinación:

1.– Dirección de Coordinación.

2.– Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

3.– Oficina para la Modernización Administrativa.

b) Secretaría General de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico:

1.– Dirección para el Desarrollo Autonómico

2.– Dirección de lo Contencioso

3.– Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo

CAPÍTULO II
DEL VICEPRESIDENTE DEL GOBIERNO

*Artículo 3.*– Vicepresidente del Gobierno.

1.– El Vicepresidente del Gobierno coordina la acción general y sectorial del Gobierno bajo la dirección del Lehendakari y sin perjuicio de la competencia y la responsabilidad de cada Consejero en la gestión de sus respectivas áreas de actuación.

2.– Para el desarrollo de sus funciones se delegan en el Vicepresidente las siguientes atribuciones:

a) Prestar al Parlamento la información y ayuda que recabe del Gobierno.

b) Resolver los conflictos de competencias entre los distintos Departamentos, cuando no se hubiere alcanzado el acuerdo entre sus titulares.

c) Jaurlaritzaren Ordezko Batzordeen bileretarako deia egin eta, beharko balitz, horien gidaritza eta zuzendaritza bere gain hartzea.

d) Jaurlaritzaren legegintza-programa koordinatzea.

e) Jaurlaritzaren zereginak era itxuratsuan burutzeko eta hartu beharreko erabakiak modu egokian betetzeko behar diren barne arauak ezartzea.

f) Jaurlaritzak eta berorren ordezko batzordeek hartutako erabakiak betetzea eta argitaratzea sustatu eta koordinatu.

3.– Lehendakaria egon ez edo gaixorik egon dadinean, lehendakariordea jarriko da bere lekuan, horrela xedatzen baita Jaurlaritzari buruzko Legean.

## III. ATALBURUA
## KOORDINAZIO IDAZKARITZA NAGUSIA

*4. atala.*– Koordinazio Idazkaritza Nagusia.

1.– Koordinazio Idazkaritza Nagusiaren egitekoak:

a) Jaurlaritzaren iharduera koordinatzeko eginkizunetan lehendakariari urgaztea.

b) Jaurlaritzaren Legegintza-egutegia gertatu, garatu, horren jarraipena egin eta Legebiltzarrean izapidetzea, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Idazkaritza Nagusiarekin batera lan eginez.

c) Jaurlaritzak onartutako egitasmo eta programen egutegia gertatu, garatu eta horren jarraipena egitea.

d) Jaurlaritzaren Programa garatu eta aplikatzeko, sailen arteko ihardueren koordinazio orokorrari eta alorkakoari buruzko jarraibideak onartzeko proposamena egitea Jaurlaritzaren lehendakariordeari.

e) Jaurlaritzaren ihardueraren berri eman eta horren jarraipena egiteko baliabideen kudeaketa gidatzea eta koordinatzea.

f) Sailekin batera Jaurlaritzak Legebiltzarrean hartu dituen konpromezuak zenbatean bete diren jagotea.

g) Jaurlaritzaren, Ekonomi gaietarako Ordezko Batzordearen eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 22. atalean jasotakoaren arabera sor daitezen gainerako batzordeen zereginak eratzea.

h) Legebiltzarrarekin, Arartekoarekin eta instituzioekin izan ditzan harremanetan Jaurlaritzaren lehendakariordeari urgaztea; beharrezkoa gerta dadinean, halaber, Jaurlaritza ordezkatuko du Legebiltzarreko Bozeramaleen Batzordearen aurrean.

i) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren komunikazio eta berriemate politika burutzea. Lehendakariordeak egotz diezazkion harreman publiko eta instituzionalen eremuan beharrezkoak izan daitezen ihardUerak ere garatuko ditu.

c) Convocar y, en su caso, presidir y dirigir las Comisiones Delegadas del Gobierno.

d) Coordinar el programa legislativo del Gobierno.

e) Establecer las normas internas que se precisen para el buen orden de los trabajos del Gobierno y para la adecuada preparación de los acuerdos que hayan de adoptarse.

f) Promover y coordinar la ejecución de los acuerdos del Gobierno y de sus Comisiones Delegadas y, en su caso, su publicación.

3.– El Vicepresidente suple al Lehendakari, en los casos de ausencia o enfermedad, de conformidad con lo dispuesto en la Ley de Gobierno.

## CAPÍTULO III
## DE LA SECRETARÍA GENERAL DE COORDINACIÓN

*Artículo 4.*– Secretaría General de Coordinación.

1.– Son funciones de la Secretaría General de Coordinación:

a) La asistencia al Vicepresidente en las funciones de coordinación de la acción del Gobierno.

b) La preparación, desarrollo y seguimiento del Calendario Legislativo del Gobierno, así como de su tramitación parlamentaria, en colaboración con la Secretaría General de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

c) La preparación, desarrollo y seguimiento del Calendario de Planes y Programas aprobado por el Gobierno.

d) Proponer al Vicepresidente del Gobierno la aprobación de instrucciones sobre coordinación general y sectorial de las actuaciones departamentales de desarrollo y aplicación del Programa de Gobierno, y supervisar su ejecución.

e) Dirigir y coordinar la gestión de los instrumentos de información y seguimiento de la acción del Gobierno.

f) El seguimiento del grado de cumplimiento de los compromisos parlamentarios adquiridos por el Gobierno en colaboración con los departamentos.

g) La organización de los trabajos del Gobierno, de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, así como de las demás Comisiones previstas en el artículo 22 de la Ley de Gobierno que, en su caso, se constituyan.

h) La asistencia al Vicepresidente del Gobierno en las relaciones con el Parlamento, el Ararteko e interinstitucionales asumiendo, cuando proceda, la representación del Gobierno ante la Junta de Portavoces de la Cámara.

i) La ejecución de la política de comunicación e información de la Vicepresidencia del Gobierno así como el desarrollo de las actuaciones precisas en el ámbito de las relaciones públicas e institucionales que le sean encomendadas por el Vicepresidente en el ejercicio de sus funciones.

j) Administrazio publikoa egokitzeari eta hobetzeari buruzko lanen gidaritza eta koordinazioa; sailekin batera ihardungo du eta Jaurlaritzaren lehendakariordearen eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren gainbegirapean.

2.– Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako kontratazio organoa ere Koordinazio Idazkaritza izango da.

*5. atala*.– Koordinazio Zuzendaritza.

Koordinazio Zuzendaritzaren eginkizunak:

a) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin lankidetzan arituz, Jaurlaritzaren Programa garatu eta betetzeko sailek zertu ditzaten ihardueren plangintza, programazioa eta ebaluazioa burutzeko bide eman dezaten teknikak eta metodoak ezartzea proposatuko du.

b) Bere ohiko ihardunean Jaurlaritzak beteko dituen plan, programa eta ekintza esanguratsuen egutegia gertatzea. Sailen eta gainerako erakundeen plan, programa eta ekintzei buruzko informaziorako eta horien jarraipenerako prozedurak proposatu eta burutuko ditu, Lehendakariordetzari dagozkion koordinazio eginkizunak errazteko.

c) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak gauzatu ditzan koordinazio eginkizunak burutzeko beharrezkoa den sorospen teknikoa eskaintzea, batik bat Sail bati baino gehiagori daragioten plan, programa edo ekintzei dagokienean.

d) Jaurlaritzako sailen iharduera koordinatzeko beharrezkoak diren txostenak eta azterlanak gauzatzea. Jaurlaritzaren programa zertuz sailek gertatu ditzaten plan eta programa orokorrei eta alorkakoei buruz berriematea.

e) Jaurlaritzaren lehendakariordeari dagozkion jarraipen eta koordinazio eginkizunetarako beharrezkoak diren agiriak eta urgazpena eskatzea sailei.

f) Administrazio eta kudeaketa mailako iharduerak, sailek eta erakundeek burutu ditzatenak alegia, gauzatzeko diren ekimenak aurkeztea eta hobekuntzei buruzko planak garatzea, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoarekin batera. Hobekuntzok, Jaurlaritzaren ekintza administratiboa erraztu eta disfuntzioak eta iharduera autonomo eta koordinaziorik gabekoak ekidingo dituzte.

g) Horien eztabaida Jaurlaritzaren Kontseiluari edo Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeari dagozkieneko gaiei buruzko aholkuak ematea, lehendakariordeak edo Koordinazio idazkari nagusiak hala eskatzen duenean.

h) Sailen arteko koordinazioari dagokion alorrean egotz deizazkioten gainerakoak.

*6. atala*.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

1.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, Jaurlaritzaren Kontseiluari eta Ekonomia gaietarako Ordezko Batzordeari dagokienez, eta bai Jaurlaritzari buruzko Legea-

j) La dirección y coordinación de los trabajos sobre racionalización y mejora de la Administración Pública en colaboración con los departamentos y bajo la supervisión del Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública.

2.– La Secretaría de Coordinación es el órgano de contratación de la Vicepresidencia del Gobierno.

*Artículo 5*.– Dirección de Coordinación.

Son funciones de la Dirección de Coordinación:

a) Proponer, en coordinación con la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, la aplicación de técnicas y métodos que permitan la planificación, programación y evaluación de las actuaciones de los diferentes Departamentos encaminadas al desarrollo y ejecución del Programa y de la acción del Gobierno.

b) Elaborar un calendario de Planes, Programas y actuaciones significativas del Gobierno en desarrollo de su acción, así como proponer y ejecutar los procedimientos de información y seguimiento de los planes, programas y actuaciones de los diversos Departamentos y Organismos a fin de facilitar las funciones de coordinación que corresponden a la Vicepresidencia.

c) Prestar la asistencia técnica precisa para el ejercicio de las funciones de coordinación que realice la Vicepresidencia del Gobierno y, fundamentalmente, en relación con aquellos planes, programas o actuaciones cuya ejecución afecte a más de un Departamento

d) Realizar los informes y estudios precisos para coordinar la actuación de los diferentes Departamentos del Gobierno. En particular, informará sobre los planes y programas generales o sectoriales que se elaboren por los Departamentos en ejecución del Programa y de la acción del Gobierno.

e) Recabar de los distintos Departamentos la asistencia y documentación precisa para facilitar las funciones de seguimiento y coordinación que corresponden al Vicepresidente del Gobierno.

f) Presentar iniciativas y desarrollar planes de mejoras a realizar en aquellas actuaciones administrativas y de gestión de los Departamentos y Organismos que faciliten una acción administrativa de Gobierno coherente y eviten disfunciones y actuaciones autónomas y descoordinadas en colaboración con la Oficina para la Modernización Administrativa.

g) Asesorar, a instancias del Vicepresidente o de la Secretaria General de Coordinación, sobre los asuntos cuya deliberación corresponda al Consejo de Gobierno o a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

h) Cualesquiera otras que se le encomienden en materia de coordinación interdepartamental.

*Artículo 6*.– Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

1.– La Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, ejercerá con respecto Consejo de Gobierno, la Comisión Delegada para Asuntos Económicos y el resto de las Comisiones Delegadas

ren 22. atalaren arabera sor daitezkeen gainerako Ordezko Batzordeei dagokienez ere, ondorengo lerrokadetan adierazten diren eginkizunak beteko ditu:

a) Kontseilu eta batzorde horien bilkurak gertatzea; horietarako gaizerrendak eta azterketaren gai izango diren gaiak ezagutzeko beharrezko diren agiriak, aurrekinak eta datuak gertatzea eta banatzea; erabakiak izapidetzeko eta, hala behar izan dadinean, horiek balioa izan dezaten beharrezko diren lege eta finantzaketa mailako baldintzak bete daitezela zaintzea eta, zilegizko balitz, behar diren txostenak eskatzea.

b) Aztergaiak izapidetzeari buruzko arauak eta jarraibideak eta legegintza-teknikari buruzko ohartarauak, denak ere Jaurlaritzak onartutakoak, bete daitezen zaintzea.

c) Onartu diren erabakiei buruzko aktak gertatzea eta jagotea, bete daitezen zainduz.

d) Bileretan aurkeztu behar diren agiriak normalizatzeko jarraibideak ezartzea.

e) Jaurlaritzaren organo kolegiatu horien lanei buruzko agirien tratamendu informatikoa.

f) Jaurlaritzaren ihardunen programazioari, duen lege-egutegiari eta programa betetzen deneko mailari buruzko txostenak eta proposamenak gertatzea, Koordinazio Zuzendaritzarekin lankidetzan. Horretaz gain, egin behar dituen lanen antolaera eta eraketa eta azterketaren gai izango diren ekintzei buruzkoak ere bai.

g) Jaurlaritzaren iharduerari buruzko berriemate- eta jarraipen-baliabideen kudeaketa.

h) Horien aurrean izapidetu daitezen gaiei buruzko agiriak kautotzea.

2.– Halaber, honako egiteko hauek beteko ditu Legebiltzarrarekiko harremanei dagokienetan:

a) Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harreman eta komunikazio organu izatea.

b) Legegintza programa ikertze, jarraitze eta koordinatze lanak egitea, programa hori Legebiltzarrean dagoen bitartean. Legebiltzarrean aurkeztu daitezen Lege-Proposamen, Legez Besteko Proposamen eta Mozioak aintzat hartzeari dagozkionetan, Jaurlaritzak izan behar dituen irizpideak mamitze-bideetan laguntzeko, ikerketak, agiribilketa-lanak eta aurre-ekintzak gauzatzea. Legebiltzarrean aurkez daitezen ekimen, galdera eta interpelazio horiei buruzko argibideak Administrazioko organu agintedunengandik eskuratzea. Ekimen, galdera eta interpelazio horiek ikertzea, era honetan, dagokien sailei txostenak eta sorospena eskani ahal izateko. Legebiltzarrak Jaurlaritzari ezar diezazkion konpromezuen jarraipena egitea eta, oro har, Legebiltzarreko gorabeheren berri Jaurlaritzari ematea.

c) Horietaz aparte, Zuzendaritza honi dagokio baita ere, Jaurlaritzaren eta Arartekoaren arteko harreman eta komunikazio organu izatea.

3.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari atxikita egongo

que, en su caso, se creen al amparo del art. 22 de la Ley de Gobierno, las siguientes funciones:

a) Preparar las Sesiones, preparar y distribuir el Orden del Día de las mismas y la documentación, antecedentes y datos que aquellas precisen para conocer los asuntos sometidos a su deliberación; cuidar del cumplimiento de los requisitos de legalidad jurídica y financiera necesarios para la tramitación y, en su caso, validez de los acuerdos, recabando, cuando sea preciso, los informes preceptivos.

b) Cuidar de la observancia de las normas e instrucciones sobre tramitación de asuntos y de las directrices de técnica legislativa aprobadas por el Gobierno.

c) La preparación y custodia de las Actas de los acuerdos adoptados, velando por su ejecución.

d) Establecer instrucciones para la normalización de los documentos que deban presentarse a sus reuniones.

e) El tratamiento informático de la documentación relativa a los trabajos de los citados órganos colegiados del Gobierno.

f) Elaborar, informes y propuestas relativos a la programación de la actividad del Gobierno, de su calendario legislativo y sobre el grado de cumplimiento de su programa, en colaboración con la Dirección de Coordinación, y sobre la organización y ordenación de los trabajos del mismo y la calidad de las disposiciones y actos que se sometan a su deliberación.

g) La gestión de los instrumentos de información y seguimiento de la acción del Gobierno que se establezcan.

h) Autenticar los documentos sobre los asuntos que se tramiten ante ellos.

